



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko apirilaren 25a

55. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00023. Galdera, 2025-2026 ikasturtean bi ikastetxetan bi urteko gelak ezartzeko asmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00024. Galdera, BSHko Europako Batzordearekiko bileraren emaitzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-25/PES-00025. Galdera, BSH Electrodomésticos España SAko zuzendari teknikoarekin izandako harremanaren emaitzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-25/PES-00026. Galdera, Industriako estatu idazkariarekin izandako harremanaren emaitzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-25/PES-00027. Galdera, BSHko enpresa-batzordeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00028. Galdera, lanerako erabilgarri ez dauden errenta bermatuaren jasotzaileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-25/PES-00029. Galdera, 2023-2027 legegintzaldirako programa-akordioan hartutako konpromisoen betetze-mailari buruzko kontu-ematearen txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-25/PES-00030. Galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionaleko nabean egin beharreko obren lizitazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-25/PES-00031. Galdera, Nafarroan datu-tratamenduko zentroak paratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-25/PES-00032. Galdera, Aragoi, Madril en edo Extremaduran datu-zentroak paratu edo paratuko dituzten enpresa teknologikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-25/PES-00033. Galdera, otsailaren 22ko 9/2012 Foru Dekretua eta/edo martxoaren 30eko 240/2015 Ebazpena aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-25/PES-00034. Galdera, ingurumenaren arloko fiskalitateari buruzko foru-lege proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-25/PES-00035. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko langileek izandako elikadura-intoxikazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- 11-25/PES-00036. Galdera, Untzitiko errekatik heldu den ura sartzeko ekidite aldera Eloko urtegiaren egin beharreko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-25/PES-00037. Galdera, Doña Álvarez Álvarez ikastetxe publikoan D ereduako lerro bat jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-25/PES-00038. Galdera, Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroaren egoitza mantentzeko gastuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-25/PES-00039. Galdera, Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroaren egoitza hobetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-25/PES-00040. Galdera, Hezkuntza Departamentuaren Hezkidetza Plana ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-25/PES-00041. Galdera, jakiteko ea zer egin den Atarrabiako Atargi ikastetxeko irakasle baten jokabidea dela-eta aurkeztutako salaketari buruz. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-25/PES-00042. Galdera, Adimen Artifizialari buruzko ikerketarako deialdia dela-eta gertatutakoaren balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-25/PES-00043. Galdera, lokomozio-gastuetarako kargatik salbuetsitako gastuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00023. Galdera, 2025-2026 ikasturtean bi ikastetxetan bi urteko gelak ezartzeko asmoari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak 2025-2026 ikasturtean bi ikastetxetan bi urteko gelak ezartzeko asmoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarriaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak 11-25/PES-00023 idatzizko galdera egin du, 2024-2025 ikasturtean ezarritako pilotajearen ondorioen aldez aurretiko azterketarik egin den jakite aldera. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Hezkuntza Departamentuak ez du amaitu ikasturte honetan ezarritako bi urteko gelen pilotajearen ebaluazioa.

Argitu behar da ezen, erantzun hau eman den egunean, Hezkuntza Departamentuak ez duela behin betiko inolako erabakirik hartu 2024/2025 ikasturterako bi urteko gelen etorkizunaren inguruan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00024. Galdera, BSHko Europako Batzordearekiko bileraren emaitzari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak BSHko Europako Batzordearekiko bileraren emaitzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari (PPN) atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Europako BSH Batzordearekin izandako bileraren emaitzari buruz (11-25/PES-00024). Hona Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

2024ko ekainaren 18an, Nafarroako Parlamentuan lan-bilkura bat egin zen BSHko enpresa-batzordearekin. Bertan, enpresa-batzordeko kideek adierazi zuten hiru aste lehenago Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariarekin bilera izan zutela, enpresak bizi zuten egoera zailaren berri emateko. Bilera horre-

tan, kontseilariak laguntzeko prestutasuna agertu zien. Zehazki, esan zuten kontseilariak Europako batzordearekin harremanetan jartzeko konpromisoa agertu ziela, hori baita multinazionalak bere asmoen berri ematen dizkion informazio- eta kontsulta-organoa.

Zein izan da Europako batzordearekin izandako harremanaren emaitza?

Kontseilari honek Munichen enpresaren zuzendariarekin harremanetan jartzeko konpromisoa baino ez zuen hartu.

Hala ere, parlamentari andreak galdera horrekin lotutako gaiak aurkitzen ahal ditu kontseilari honek eskatuta otsailaren 12an egindako agerraldiaren bideo aktan. Bertan, enpresaren egoeraren berri eman zuten eta gobernuak egindako jarduketan errepaso kronologikoa ere egin zen. Esteka honen bidez, bideoa kontsultatzen ahal duzu: <https://grabaciones.parlamentodenavarra.es/watch?id=MGZjNTlyNTEtZDI3Ny00MjBjLWExZWmtZDI mZTJkMWQ5YTJh>

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00025. Galdera, BSH Electrodomésticos España SAko zuzendari teknikoarekin izandako harremanaren emaitzari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak BSH Electrodomésticos España SAko zuzendari teknikoarekin izandako harremanaren emaitzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari (PPN) atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du BSH Electrodomésticos España SAren zuzendari teknikoarekin harremanetan jartzearen emaitzari buruz (11-25/PES-00025). Hona Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

2024ko ekainaren 18an, Nafarroako Parlamentuan lan-bilkura bat egin zen BSHko enpresa-batzordearekin. Bertan, enpresa-batzordeko kideek adierazi zuten hiru aste lehenago Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariarekin bilera izan zutela, enpresak bizi zuen egoera zailaren berri emateko. Bilera horretan, kontseilariak laguntzeko prestutasuna agertu

zuen. Zehazki, esan zuten kontseilariak José Yuste Pallarés BSH Electrodomésticos España SAko zuzendari teknikoarekin harremanetan jartzeko konpromisoa agertu ziela.

Zer emaitza izan du harreman horrek?

Nafarroako Gobernuaren eta BSH Electrodomésticos España SAko zuzendari teknikoaren arteko harremana instalazioa itxi dadila saihesteko alternatibak bilatzera bideratu da, eta zenbait konponbide aztertu dira. Harremanetan jartzeari esker lantaldea sortu ahal izan da Industria Ministerioarekin batera, lehendik dauden talentua eta azpiegiturak aprobetxatzen ahal dituzten industria proiektuak eta industrializazio aukerak jorratzeko.

Hala ere, parlamentari andreak galdera horretarako erantzuna aurkitzen ahal du kontseilari honek eskatuta otsailaren 12an egindako agerraldiaren bideo aktan. Bertan, enpresaren egoeraren berri eman zuen eta gobernuak egindako jarduketan errebaso kronologikoa ere egin zen. Esteka honen bidez, bideoa kontsultatzen ahal duzu: <https://grabaciones.parlamentodenavarra.es/watch?id=MGZjNTIyNTEtZDI3Ny00MjBjLWExZWmtZDI mZTJkMWQ5YTJh>

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00026. Galdera, Industriako estatu idazkariarekin izandako harremanaren emaitzari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Industriako estatu idazkariarekin izandako harremanaren emaitzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari (PPN) atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Industriako estatuko idazkariarekin harremanetan jartzearen emaitzari buruz (11-25/PES-00026). Hona Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

2024ko ekainaren 18an, Nafarroako Parlamentuan lan-bilkura bat egin zen BSHko enpresa-batzordearekin. Bertan, enpresa-batzordeko kideek adierazi zuten hiru aste lehenago Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariarekin bilera izan zutela, enpresak bizi zuen egoera zailaren berri emateko. Bilera horretan, kontseilariak laguntzeko prestutasuna agertu

zuen. Zehazki, esan zuten kontseilariak Industria Ministerioko estatu-idazkariarekin harremanetan jartzeko konpromisoa agertu zela.

Zer emaitza izan du harreman horrek?

Industria Ministerioarekin harremanetan jartzearen ondorioz lantalde bat sortu zen Ezkirozko instalazioa ez ixteko alternatibak aztertzeko.

Albiste esteka honen bidez ikusten ahal duzu: <https://www.navarra.es/eu/-/prentsa-oharra/industria-ministerioak-nafarroako-gobernuak-eta-bshk-lantalde-bat-sortu-dute-ezkirozko-lantegia-iz-ixteko-aukerak-aztertzeko>

Hala ere, parlamentari andreak galdera horretarako erantzuna aurkitzen ahal du kontseilari honek eskatuta otsailaren 12an egindako agerraldiaren bideo aktan. Bertan, enpresaren egoeraren berri eman zuen eta gobernuak egindako jarduketan errebaso kronologikoa ere egin zen. Esteka honen bidez, bideoa kontsultatzen ahal duzu: <https://grabaciones.parlamentodenavarra.es/watch?id=MGZjNTlyNTEtZDI3Ny00MjBjLWExZWmtZDI mZTJkMWQ5YTJh>

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00027. Galdera, BSHko enpresa-batzordeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak BSHko enpresa-batzordeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari (PPN) atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du BSHren enpresa batzordeari buruz (11-25/PES-00027). Hona Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

2024ko ekainaren 18an, Nafarroako Parlamentuan lan-bilkura bat egin zen BSHko enpresa-batzordearekin. Bertan, enpresa-batzordeko kideek adierazi zuten hiru aste lehenago Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariarekin bilera izan zutela, enpresak bizi zuen egoera zailaren berri emateko. Bilera horretan, kontseilariak laguntzeko prestutasuna agertu

zuen. Bertan, kontseilariak zenbait konpromiso hartu zituen, besteak beste, BSH enpresa-batzordeari emandako pausuen berri ematea.

Nola jakinarazi zaizkio enpresa-batzordeari emandako pausuak?

2024ko maiatzean lehenbiziko aldiz harremanetan jarri ondoren, etengabeko harremana egon da enpresa batzordearekin, eta Gobernuak konponbideak bilatzeko emandako urratsen eta garatutako jarduketan berri eman zaie. Harremana telefono bidezkoa izan da beti.

Hala ere, parlamentari andreak galdera horretarako erantzuna aurkitzen ahal du kontseilari honek eskatuta otsailaren 12an egindako agerraldiaren bideo aktan. Bertan, enpresaren egoeraren berri eman zuen eta gobernuak egindako jarduketan errebaso kronologikoa ere egin zen. Esteka honen bidez, bideoa kontsultatzen ahal duzu: <https://grabaciones.parlamentodenavarra.es/watch?id=MGZjNTIyNTEtZDI3Ny00MjBjLWExZWmtZDI mZTJkMWQ5YTJh>

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00028. Galdera, lanerako erabilgarri ez dauden errenta bermatuaren jasotzailei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak lanerako erabilgarri ez dauden errenta bermatuaren jasotzailei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-25/PES-00028):

- Urtarrilaren 15ean, Kontuen Ganberak "Errenta bermatuaren kudeaketa eta enpleguan duen inpaktua (2019-2023)" fiskalizazio-txostena argitaratu zuen. Txosten hori Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eskariz eginkoa da. Txostenean ondorioztatzen denez,

2023an, errenta bermatuaren onuradunen % 44 soilik zeuden lan egiteko prest. Horietatik % 38 18 urtez beherakoak dira.

Adingabe horietatik, zenbat dira errenta bermatuaren unitate jasotzailearen titular?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Aldez aurretik, argitu behar da Kontuen Ganberak aipatzen dituen adingabeen % 38 ez daudela lan egiteko prest. Hau da, prestazioa jasotzen duten onuradun guztien % 44 daude lan egiteko prest, eta % 56, berriz, ez. % 56 horretatik, % 38 adingabeak dira. Horietatik, hiru izan dira prestazioaren titular.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00029. Galdera, 2023-2027 legegintzaldirako programa-akordioan hartutako konpromisoen betetze-mailari buruzko kontu-ematearen txostenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak 2023-2027 legegintzaldirako programa-akordioan hartutako konpromisoen betetze-mailari buruzko kontu-ematearen txostenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin

du (PES-00029); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- Zein entitate eta pertsonak taxutu dute pasa den urtarrilaren 17an Iruñean aurkeztu zen kontu-ematearen txostena, Nafarroako Alderdi Sozialistak, Geroa Baik eta Contigo-Zurekinek sinatutako 2023-2027 legegintzaldirako programa-akordioan hartutako konpromisoen betetze-mailari buruzkoa?

Txostena Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiko barneko langileek egin dute.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00030. Galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionalako nabeetan egin beharreko obren lizitazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionalako nabeetan egin beharreko obren lizitazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Eraikuntzako Robotikaren eta Industrializazioaren Zentro Nazionalaren nabeen obrei buruz (11-25/PES00030). Hona Nafarroako Gobernu Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digtaleko kontseilariaren erantzuna:

Eraikuntzako eta Arkitekturako Errobotikaren eta Industrializazioaren Zentroa (BAI) hartuko duten nabeak zaharberitzeko obren lizitazioa egiten da Nasuvinsari berori egikaritu eta martxan jartzeko enkargua egin ondoren, asteazkenean argitaratutako prentsa oharrean jasota dagoenarekin bat.

Ildo horretatik, kasu hauetan ohikoak diren izaipideak egiten ari dira. Horrez gainera, Nafarroako 2025eko Inbertsio Programako (PRIN25) partidak sortu dira Nafarroako 2025eko Aurrekontu Orokorretan, eta Gobernuaren akordio bidez zuzkitu dira.

Proiektu hori 2. osagaiko C02.I05 neurriaren barnean dago; eraikin publikoen zaharberitzea. sustatzeko programari (PIREP) buruzko neurria da, eta autonomia erkidegoen eta toki entitateen parke publiko instituzionala modu jasangarrian zaharberritu nahi du titulartasun publikoko eta erabilera publikoko mota guztietako eraikinetarako.

Jarduketa zehatz hori honako helburu hau betetzeko da: eraikin publiko berrituen 2.804 m² izatea, energia primarioaren eskaria murriztea lortuko dutenak gutxienez ere % 30 batez beste; horretarako epea 2026ko martxoaren 31n amaitzen da, eta, beraz, betetzeko epearen barruan gaude.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digtaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00031. Galdera, Nafarroan datu-tratamenduko zentroak paratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Nafarroan datu-tratamenduko zentroak paratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-25PES-00031), Nafarroan datuak prozesatzeko zentroen instalazioen inguruan. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernua lan egiten ari da gure komunitatea oinarri teknologikoa eta ikerketakoa duten enpresek inbertitzeko lurralde gisa posizionatzeko.

Hori dela-eta, harreman zuzenean gaude sektoreko enpresekin, gure komunitatea haietzako aukera dela erakusteko. Administrazioak sektore enpresarialarekin dituen elkarrizketa guztiak enpresa-sekretutzat hartzen ahal dira, interes enpresarial eta komertzial legitimoen kategorian kalifikatzen ahal den informazioa izateagatik, berori ezagutarazteak kalte egiten ahal diolako lehiatzeko eta negoziatzeko posizioari aldean merkatuan; beraz, azken batean badaude zuzenbidean oinarritutako arrazoiak aipatutako informazioa ez ematea erabakitzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 14an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00032. Galdera, Aragoi, Madrilen edo Extremaduran datu-zentroak paratu edo paratuko dituzten enpresa teknologikoei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Aragoi, Madrilen edo Extremaduran datu-zentroak paratu edo paratuko dituzten enpresa teknologikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Aragoi, Madrilen eta Extremaduran datu zentroak instalatu dituzten edo instalatuko dituzten teknologia enpresei buruz (11-25/PES-00032). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna: (11-25/PES-00032).

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak memorandum bat sinatu zuen Microsoft Ibérica enpresarekin 2024ko ekainean, prentsa-ohar baten bidez jakinarazi zenaren arabera. Enpresa hori zure galdera idatzian adierazitakoetako bat da, eta haren helburua da bien arteko lankidetzaz zortzi lan-ildotan antolatzeko, hala nola Berrikuntza Digitalaren Poloa, datu sektorialak partekatzeko plataformak, prozesuen automatizazioa eta efizientzia software-irtenbideen garapenean, talentu digitalaren sorrera, IKTetako,

zibersegurtasuneko, kultura-aldaketako eta bideo-jokoaren industriako langileen prestakuntzaren bidezko inklusioa.

Gainera, Nafarroako Gobernua modu diskretuan lanean ari da gure erkidegoa teknologia- eta ikerketa-oinarriko enpresen inbertsiorako lurralde mesedegarri gisa kokatzeko; beraz, enpresekin elkarrizketak izanez gero, eta operadore ekonomiko pribatuek emandako informazioaren kasuan, informazio hori alderdien konfidentzialtasunakordioak babesten du, eta informazio hori zabalitzeak araudia urra lezake, hala nola Enpresa Sekretuei buruzko otsailaren 20ko 1/2019 Legea, eta, era berean, Gardentasunari, informazio publiko eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 31. artikuluan ezarritako mugak aplikatu litezke.

Azkenik, eta Nafarroako Gobernuak abian jarritako aurreikusita duen neurri gisa, etorkizuneko Industriari buruzko foru legea aipa dezakegu; izan ere, lege horretan, sinplifikazio eta arintze administratiboa aurreikusten da, zehazki, foru intereseko inbertsio proiektuen edo Nafarroarentzat interes estrategikoa duten enpresa proiektuen edo enpresa sustapenaren bidez, industria ezarpen berriak erakartzeko eta lurzoru eta industria azpiegitura berriak kudeatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 9an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00033. Galdera, otsailaren 22ko 9/2012 Foru Dekretua eta/edo martxoaren 30eko 240/2015 Ebazpena aldatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak otsailaren 22ko 9/2012 Foru Dekretua eta/edo martxoaren 30eko 240/2015 Ebazpena aldatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 11-25/PES-00033 galdera idatzia egin du Nafarroako goi mailako kirolari izateko baldintza teknikoak eta kirol-baldintzak jasotzen dituen martxoaren 30eko 240/2015 Ebazpenaren eta/edo otsailaren 22ko 9/2012 Foru Dekretuaren inguruan. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

– Kultura eta Kiroleko kontseilariaren uztailaren 3ko 52/2023 Foru Agindu bidez prozedura hasi zen Nafarroako errendimenduko kirola eta Nafarroako goi mailako kirolarien zerrenda arautuko dituen Foru Dekretu proiektua egiteko.

– Aurretiko kontsulta publikoaren izapidea egin zen Nafarroako Gobernu Irekiaren atariaren bidez, eta herritarrei ekarpenak egiteko epea eman zitzaien 2023ko abuztuaren 1etik 31ra bitarte.

– Aurretiko kontsulta publikoaren izapidea egin zen Nafarroako Gobernu Irekiaren atariaren bidez,

eta herritarrei ekarpenak egiteko epea eman zitzaien 2023ko abuztuaren 1etik 31ra bitarte.

– Ekarpenak jaso ondoren, Nafarroako Gobernu Irekia ren atarian argitaratu zen jasotako ekarpenetako batzuk sartzeko eta beste batzuk baztertzeko erabakia justifikatzen zuen txostena.

– 2024ko udatik gaur egunera arte bilerak egin dira proiektuan jasotako neurrietako batzuen eragin zuzena jasotzen zuten zenbait organismoekin (bakoitzak zuen prestasunaren arabera). Zehazki, Hezkuntza Departamentuarekin, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiarekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin.

– Hemendik aurrera, eta bilera horien eraginez, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak berriz ere berrikusiko du testua eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 132. artikuluan ezarritako gainerako izapide nahitaezkoak eginen ditu. Azkenik, proiektuari Nafarroako Kontseiluak nahitaezko irizpena eman beharko dio, Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legeak ezartzen duenari jarraikiz, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Gobernuaren Idazkaritzako eta Araugintzako Zerbitzuak txostena eman ondoren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria:
Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00034. Galdera, ingurumenaren arloko fiskalitateari buruzko foru-lege proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak ingurumenaren arloko fiskalitateari buruzko foru-lege proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du – 202500353 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– (11-25/PES-00034) informazioa eskatzeko Nafarroako Gobernuak ingurumeneko fiskalitate neurriei buruzko foru legearen proiektua Nafarroako Parlamentuari ez helarazteko arrazoiei buruz (11-25/PES-00034). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak martxan dauka Fiskalitate Mahai bat, zergen arloko neurriei buruzko legeak urtero esparru fiskalean jasotzen dituen berritasunen parte izanen diren proposamenak aztertu, eztabaidatu eta egiteko.

Esparru horretan onartzen dira askotariko aloretako fiskalitateari buruzko proposamenak, hala nola ingurumenaren alorrekoak, eta hori da epe laburrean eta ertainean jarraitzekoa den asmoa zergen arloko neurriei buruzko hurrengo lege proiektuak planteamendu berriak jaso ahal izateko ingurumen fiskalitatearen inguruan.

Hori guztia, abiapuntutzat hartuta fiskalitatearen inguruko edozein aldaketa ezin dela izan esparruaren arabera indibidualizatutako arau bat; aitzitik, martxan jartzekoak diren ekimen guztiak jasoko dituen legean sartzen diren neurrien parte izan behar du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-25/PES-00035. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko langileek izandako elikadura-intoxikazioei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko langileek izandako elikadura-intoxikazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko langileen artean elikadura intoxikaziorik egon den jakiteko (11-25/PES-00035). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Parlamentariak aurtengo urtarrileko agerraldia hizpide duelakoan, aipatu behar da ezen, urtarrilaren 23an ezagutu zela Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko (NOU) 22 langilek gastroenteritis akutuko sintomak agertu zituztela, eta guztiek jan zutela 2025eko urtarrilaren 22an Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko A Ataleko (NOU-A) langileen kafetegian.

Langile horiei egindako inkesta epidemiologikoan jakin zenez, ukitutakoek espagetiak haragiarekin eta tomatearekin jan zituzten.

Urtarrilaren 23an azterlan epidemiologikoa egin zen, kafetegiko instalazioak ikuskatu ziren, prebentziozko jarraibideak eman ziren eta elikagai susmagarrien laginak hartu ziren Osasun Publikoko Laborategian aztertzeko.

Nola elikagaien hala kasuan eskuragarri zeuden sei gorozki laginetan *Clostridium perfringens* deritzona isolatu zen. Agente hori egotea koherentea da sintomekin eta elikagai susmagarrieekin.

Otsailaren 11n, kasuetan isolatutako anduien eta elikagaiaren alderatze genetikoaren zain gaude oraindik, behin betiko konfirmatzeko agerrialdien arazoia.

Halaber, jarraibideak eman zitzaizkien sukaldako arduradunei elikagaiak maneiatzearen inguruan, antzeko arazoak prebenitzeko, eta Iruñeko Udalaren Elikagaien Ikuskapen Zerbitzua, establezimendua ikuskatu zuena, kafetegiko titularrei helarazi beharreko ekintzak baloratzen ari da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00036. Galdera, Untzitiko errekatik heldu den ura sartzea ekidite aldera Eloko urtegian egin beharreko obrei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Untzitiko errekatik heldu den ura sartzea ekidite aldera Eloko urtegian egin beharreko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

E.H. Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Untzitiko errekatik datorren ura sar dadila ekiditeko Eloko urtegiko obrei buruz (11-25/PES-0036). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

1. Zer arrazoi dago Eloko urtegian obrak egin daitezen Untzitiko errekatik heldu den ura sartzeko ekiditeko?

2025eko Nafarroako Aurrekontu Orokorren gehitzeko zuzenketan jasotzen denez, obrak egi-

tearen arrazoia da saihestea Untzitiko erreka-uren urak Eloko urtegiko urekin nahastu daitezela.

Urtarriletik maiatzera bitarteko aldian, laboreetan tratamendu fitosanitario gehien erabiltzen den aldia denez, produktu horien presentzia detektatzen de Eloko eta Artaxoako urtegien. Hori dela eta, jarduketak planteatzen dira Untzitiko erreka-ibilgua bideratzeko eta Eloko urtegiko urarekin kontaktua izan dezala saihesteko.

2. Zergatik ekidin nahi da urtarriletik maiatzera bitarte erreka horretako ura sartzeko? Ba al du zerikusirik Untzitiko erreka heldu diren jariatze-urak edo lurrazpiko urak dituzten nekazaritzako lurzatietan herbizida eta pestizida gehiago erabiltzen den unearekin?

Untzitiko erreka-uren nekazaritza erabilera fitosanitarioen hondarrak detektatu dira. Presentzia gorabeheratsua da hein handiagoan edo txikiagoan produktu horiekin tratamenduak egiten diren garaien arabera. Gehiago agertzen dira urtarriletik maiatzera bitarte, eta gainerako hilabeteetan gutxiago edota ezer ere ez.

3. Nafarroako Gobernuak ba al dauka uraren kalitateari buruzko analisirik Eloko urtegiko uren kasuan? Zenbat aldiz egin dira azken lau urteotan?

Uraren kalitatearen inguruan egindako analisiek barnean hartzen dute Osasun Publikoko laborategian aztertzen diren pestiziden zerrenda.

Pestizidak

Propoxur UPLC

Aldicarb UPLC

Carbofurano UPLC

Etiofencarb UPLC

Pirimicarb UPLC

Prosulfocarb UPLC

Fenoxicarb UPLC

Iprovalicarb UPLC

Propanil UPLC

Carbetamida UPLC

Propizamida UPLC

Alacoloro UPLC

Dimetenamida UPLC

Metazaoloro UPLC

Florasulam UPLC

Ioxinil UPLC

Atrazina-Desetil UPLC

Simazina UPLC

Metribuzina UPLC

Atrazina UPLC

Ametrina UPLC

Trietazina UPLC

Terbutilazina UPLC

Propazina UPLC

Cianazina UPLC

Prometrina UPLC

Terbutrina UPLC

Monurón UPLC

Metamitrón UPLC

Isoproturón UPLC

Clortolurón UPLC

Monolinurón UPLC

Metabenzthiazurón UPLC

Metoxurón UPLC

Diurón UPLC

Linurón UPLC

Bromacil UPLC

Cloroxurón UPLC

Iodosulfurón Metil Sodio UPLC

Dimetoato UPLC

Metolacoloro UPLC

Imazametabenz UPLC

Imazamox UPLC

Fluazifop Free Acid UPLC

Quizalofop Free Acid UPLC

Flufenacet UPLC

Quizalofop Etil UPLC

Fluazifop P-butil UPLC

Tifensulfurón Metil UPLC

Diflufenican UPLC

Penoxsulam UPLC

Pestiziden batura

Atrazina Desisopropil

Cloridazon UPLC

Asulam UPLC

Epoconazole UPLC

Tebuconazole UPLC

Metconazole UPLC

Protioconazole UPLC

Difenoconazole UPLC

Isoprocarb UPLC

Simetrina UPLC

Cadusafos UPLC

Hexaconazole UPLC

Flusilazol UPLC

Azinfos Metil UPLC

Azinfos Etil UPLC

Profam*

Teflubenzurón*

Lufenurón*

Piretrinas (analogoen batura)*

*2024-03-06an eta 2024-03-13an analizatutako parametroak

2023. urtetik 46 lagin prozesatu eta analizatu dira, uretan dauden kutsatzaile horien inguruko azterlan espezifiko bat planifikatu baitzen.

4. Gizakien kontsumorako urari buruzko lege-dian jasotzen diren parametroak gainditu al dira analisi horietan?

Edateko ur izan aurreko ura da, oraindik tratamendurik jaso ez duena Edateko Uren Araztegia (ETAP); beraz, ez du bete behar urtarrilaren 10eko 3/2023 Errege Dekretua, kontsumorako uraren kalitatearen eta uraren kontrol eta horniduraren irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen dituen, sarean banatu artean.

5. Parametro horiek ba al dute zerikusirik Untzitiko errekatik heldu diren herbizidak, pestizidak edo fitosanitarioak erabiltzearen ondoriozko substantziak agertzearekin?

Untzitiko erreka Eloko urtegia sartzen den puntuan egindako analisien arabera, detektatu da parametroak lotuta daudena Untzitiko errekatik

datozen fitosanitarioen erabileratik eratorritako substantzien presentziarekin.

6. Mairagako Mankomunitateak Tafallako edateko uren araztegia Nafarroako Ubidetik heldu den uraren analisisetan substantzia horiek agertu izanaren jakitun al da Gobernuak?

Jakitun da 2022tik; urte horretan, hain zuzen, Mairagako Mankomunitateak operadoreak egindako analisi batean aurkitutako pestiziden presentziarekin lotutako intzidentzia baten berri eman zuen, urtarrilaren 10eko 3/2023 EDaren 23. artikulari jarraikiz.

7. Mairagako Mankomunitatearen analisisetan zenbat aldiz detektatu dira giza kontsumorako gai ez diren substantziak? Legedian jasotako zer parametro gainditu da analisi horietan?

4. puntuko erantzunean azaldu denez, ETAPeko sarreran edateko ur izan aurreko ura hartzen da. Intzidentziaren jakinarazpena abiapuntutzat hartuta, taulan jasotako laginak hartu dira, ez-betetzeak adierazita:

		ETAParen sarrera	ETAParen irteera
2022	Ez-betetzeak	8	2
2023	Ez-betetzeak	5	0
2024	Ez-betetzeak	1	0

Honako pestizida hauengatik izan ziren ez-betetzeak:

Clortolurón (2022)

Clortolurón eta prosulfocarb (2023)

Prosulfocarb (2024)

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00037. Galdera, Doña Álvaro Álvarez ikastetxe publikoan D ereduko lerro bat jartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Doña Álvaro Álvarez ikastetxe publikoan D ereduko lerro bat jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH-Bildu Nafarroa talde parlamentarioak 11-25/PES-00037 galdera idatzia aurkeztu du. Faltesko Doña Álvaro Álvarez ikastetxean D ereduko lerro berri bat sor dadila bermatzeko Hezkuntza Departamentuak duen asmoaren harira. Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuak lan egingen du aztertzeko zer jarduketa egin behar diren D ereduko lerro berri bat eskaini ahal izateko. Aurrekontuaren arabera egiten ahal badira, garatuko ditu, planteatutako helburua lortu ahal izateko.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00038. Galdera, Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroaren egoitza mantentzeko gastuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroaren egoitza mantentzeko gastuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25-PES-00038 idatzizko galderari dagokionez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuak. CREENAren bitartez, bere gain hartzen ditu zentroa kokatuta dagoen eraikinaren funtzionamendu gastuak.

Hezkuntza Departamentuak okupatzen duen espazioaren garbiketa Departamentuko langile

berekiek egiten dute. Iruñeko Udala arduratzen da gainontzeko azaleraz.

Mantentze-lanetako gastu txikiak CREENAK hartzen ditu bere gain haren funtzionamenduko aurrekontuarekin; gastu handiak Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzuak hartzen ditu bere gain.

Eraikina zaharberritzeko, egokitzeko eta hobetzeko lanetako erantzukizunari dagokionez, eraikinaren erabilera lagatzeko hitzarmenaren hirugarren klausulak (2014ko apirilaren 3an sinatu zuten Iruñeko Udalak eta Hezkuntza Departamentuak) hauxe ezartzen du: aipatutako eraikinetan zaharberritze lanak egin edo instalazioak eta elementu erkideak ordeztu behar badira (estalkiak, teilatuak, fatxadak, berokuntza sistemak, elektrizitatea eta abar), hitzarmen hau sinatzen duten bi aldeek jakin eta ados egon ondoren eginen dira, eta administrazio biek finantzatuko dituzte adosten duten portzentajea, zenbait faktoreri jarraikiz, hala nola okupatutako azalera eta irakaskuntzako destino edo erabilerarako aurreikusitako iraupena

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00039. Galdera, Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroaren egoitza hobetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroaren egoitza hobetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25-PES-00039 idatzizko galderari dagokionez, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuak, CREENaren zuzendaritza berriarekin batera, lan eginen du erai-kinaren beharren diagnostikoa egiteko, bertan egin beharreko jarduketak planifikatzeko.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00040. Galdera, Hezkuntza Departamentuaren Hezkidetza Plana ezartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Hezkuntza Departamentuaren Hezkidetza Plana ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako PES-00040 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 24ko 120/2024 Foru Agindu bidez onetsitako Hezkidetza Plana aplikatzekoa da funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztietan, SKOLAERI dagokionez, behean jasotzen dira programan oraindik sartu ez diren ikastetxeak:

Burlata Irabia-Izaga ik. itundua
 Zizur Txikia. Miravalles ik. itundua
 Iruñeko LHko Carlos III ik. itundua
 Olatz Salestarren ik. itundua Bigarren Hezkuntza
 Iruñeko Dominicas Pamplona ik. itundua
 Iruñeko El Redín ik. itundua
 Puente Seminario ik. itundua
 Atarrabia Present - Notre Dame ik. itundua
 Uharteko Fund. Lab. Construcción ik. itundua
 Cuatrocientos Iruñeko ikastetxe integratu itundua
 Iruña Nafarroako Esk. Politeknikoa ik. itundua
 Iruña Maria Inmaculada ik. itundua
 Iruña María Ana Sanz ik.
 Iruña Osasun Esk. - ESTNA Ila
 Olatz Salestarren HLH Ik. Itun.
 Lizarrako IIPa
 LHko Lumbier IIPa

Iruña Donapea IIP
 Iruña Virgen Camino IIPa
 Tafallako IIPa
 Tutereta ETI IIPa
 Iruñeko AGDE
 Corella Alhama BHla
 Iruña Basoko BHla
 Iruña Julio Caro Baroja BHla
 Iruña Navarro Villoslada BHla
 Iruña Padre Moret Irubide BHla
 Iruña Plaza de la Cruz BHla
 Azkoien Ribera del Arga BHla

San Adrián Ega BHla
 Tutereta Valle Ebro BHla
 Félix Urabayen Helduen Bigarren Hezkuntzako Nafarroako Institutua
 Altsasuko Sakana Ikastola
 Ilundain Haritz Berri Erak.
 Iruña Fund. Elkarte Erak.
 Puente la Reina Centro P. Erak.
 Tutereta El Castillo Erak.
 Alesbes Fund. Lab. Construcción
 Iruñean, 2025eko otsailaren 19an
 Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00041. Galdera, jakiteko ea zer egin den Atarrabiako Atargi ikastetxeko irakasle baten jokabidea dela-eta aurkeztutako salaketari buruz

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak buruz egindako galdearen erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea zer egin den Atarrabiako Atargi ikastetxeko irakasle baten jokabidea dela-eta aurkeztutako salaketari buruz, 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH-Bildu Nafarroak 11-25/PES-00041 galdera idatzia aurkeztu du. Hezkuntza Departamentuak azken urteotan Atarrabiako Atargi HLHIPko irakaslearen inguruan egindako jarduketari dagokienez, hona hemen Hezkuntzako kontseilariak ematen duen informazioa:

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuan jasota dagoenaren arabera, Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 19ko 1495/2023 Ebazpen bidez, diziplinazko espedientea hasi zitzaion irakasleari, hezkuntzako ikuskari-

tzak lortutako informazio erreserbatuaren berri izan ondoren. Espediente hori hasi zen diziplinazko falta astun bat egin omen zuelako: "agintarieki, nagusiekiko, lankideekiko, menpekoekiko eta administratuekiko errespetu falta".

Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzua zuzendariaren abenduaren 12ko 3766/2023 Ebazpen bidez, instruktoarek proposatuta, deklaratu zen irakasleari maiatzaren 19ko 1495/2023 Ebazpen bidez hasitako espedientea artxibatu behar zela. Espedientea artxibatu zen ez baitzen behar bezala egiaztatuta geratu falta egin zuenik.

Espediente hori baino lehenago, ikastetxean familien zenbait kexa daude jasota irakaslea ikastetxe horretan egon denetik (2017-18 ikasturtea). Dokumentazio horretan, ikastetxean 2017-18 ikasturtetik 2023-24 ikasturtera bitarte irakasleari buruz jarritako hainbat kexa jasotzen dira, bai eta kexa horien harira egindako jarduketak ere: bilerak familiekin, bilerak irakaslearekin, Ikuskaritzari jakinaraztea, bilerak Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko Bizikidetzaren Arloarekin, ikuskaritzak ikasgelan egindako oharrak, ikasketa buruak irakaslearen lana gainbegiratzea, antolaketa neurriak, hala nola gelako atea irekita mantentzea edota beste irakasle bat

ikasgelan egotea ikastetxeko baliabideek horretarako aukera ematen dutenean, familiei eskatzea kekek idatziz erregistratzeko, etab.

2024ko martxoaz geroztik, Idoskia ikasleen guraso elkarteak bi bilera eskatu ditu ikastetxeko ikuskariarekin, azken urteetan irakasle horrekin bizitzen ari den egoeraz hitz egiteko.

2024ko maiatzean guraso elkartearekin izandako bileran, eskola jantokia eta irakaslearen espedientea artxibatzea izan ziren jorrotutako gaiak. Guraso elkarteak kezka agertu zuen irakasleak emandako tratuak haurrengan eragindako ondorio psikologikoengatik. Ikuskariak Departamentuko Bizikidetzaren Aholkularitzari galdetu zion ea bideragarria zen baloratzea guraso elkarteak aipatzen duen haurrentzako ustezko kalte psikologikoa. 2024ko ekainean, ikasgela barruko dinamika batzuk egin ziren Atarrabiako Atargi HLHIPan, Hezkuntza Departamentuko Berdintasun eta Bizikidetzaren Atalaren aholkularitza emanda.

2024ko ekainaren amaieran, guraso elkarteak beste bilera bat eskatu zion ikuskatzaileari, irakas-

leari buruz hitz egiteko, eta 2024-07-19an egitea adostu zen. Bilera horretan Atarrabiako Atargi HLHIPko guraso elkarteak irakaslea ikastetxera bueltatzearen ondoriozko kezka helarazi zion ikastetxeko ikuskatzaileari. Bileran ikuskatzaileak guraso elkarteari jakinarazi zion ikastetxeko zuzendaritzarekin lankidetzan behin betiko zehaztu zela plantilla eta ordutegiak antolatu zirela 2024/2025 ikasturterako. Antolaketa horretan laguntzailearen irakaspostua esleitu zitzaion irakasleari, eta horixe jakinarazi zitzaion guraso elkarteari bileran.

2024ko irailean irakaslea ez zen ikastetxean lanean hasi aldi baterako ezintasun egoeran zegoelako. Oraingo ez da lanean hasi. 2024-25 ikasturte honetan, ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi zaionez, irakaslea lanean hasiz gero, aurrez aipatutako neurriak erabiltzen jarraitu behar da ikastetxeak dituen baliabideekin gai den heinean.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00042. Galdera, Adimen Artifizialari buruzko ikerketarako deialdia dela-eta gertatutakoaren balorazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Adimen Artifizialari buruzko ikerketarako deialdia dela-eta gertatutakoaren balorazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du adimen artifizialaren inguruko ikerketarako deialdiarekin gertatu zenaren balorazioari buruz (11-23/PES-00042). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digi-

taleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioak argitaratutako informazioari eusten diogu, ez baitauek deialdian eskumena duen ministerioak argitaratutako informazioa baino gehiagorik.

Administrazio honek ez du bertan behera uztearen ondorioz eragindako ikertzeaille posibleen komunikaziorik jaso.

Nafarroako Gobernuak konpromisoa dauka adimen artifiziala tresna funtsezko gisa barnean hartzen duen zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren ekosistema garatzeko.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak urteak daramatzagu Nafarroako IRIS Berrikuntza Digitaleko Poloa sustatzen, gure komunitateko eraldaketa digitalaren eta berrikuntzaren leihatila bakar gisa. Halaber, Adimen Artifizialeko Ikerketa Zentroa (NAIR CENTER) sortu dugu. IRIS NAVARRA

Berrikuntza Digitaleko Poloaren eragileetako bat da eta IA n oinarritutako soluzioak eta ikerketa sustatzen laguntzen du, ikuspegi globala izanda, baina gure komunitatean errotua.

Ramón y Cajal-Petilla de Aragón beka ere sortu ditugu neurozientziari aplikatuta IAren inguru ikerketarako.

Hezkuntzaren sektorean, lankidetzan aritzen gara LuzIA Fundazioak eskola inguruneetan egiten dituen ekintzetan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan ematen den Konputazio Zientzien eta Adimen Artifizialaren Tracasa Katedran.

Teknologia hori osasunaren sektorean ere aplikatzen ari da; dagoeneko baditugu gaixotasunak diagnostikatzen edota COVID-19az kutsatzen

direnean pertsona batzuek zer bilakaera izanen duten aurreikusten laguntzen diguten aplikazioak.

Halaber, Gobernutik lan egiten dugu Spain Livin Lab proiektu turistikoan, zeinak adimen artifiziala turismoaren industrian sartu nahi duen bisitatzeko gaituzten pertsonen esperientzia hobetze aldera, baita Gemelos Digitales proiektuan ere, Iruñeko hiriaren erreplika digital bat sortzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00043. Galdera, lokomozio-gastuetarako kargatik salbuetsitako gastuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak lokomozio-gastuetarako kargatik salbuetsitako gastuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak galdera idatzia egin du –Nafarroako Parlamentuko 202500406 irteera zenbakia du, 2025eko urtarrilaren 23koa–, honako hau jakiteko: “Langileek zer lokomozio-gastu daukate kargatik salbuetsirik Nafarroan eta zein da horien muga?” (11-25/PES-00043). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroan langileek kargatik salbuetsita dituzten lokomozio gastuak eta horien mugak PFEZaren Erregelamenduko 8. artikuluan daude jasota. Erregelamendu hori maiatzaren 24ko 174/1999

Foru Dekretuaren bidez onetsi zen, eta honako hau jasotzen du aipatutako artikuluan:

8. artikulua. Dieta eta asignazioak, lokomozio gastuetarako eta mantenu eta egonaldien ohiko gastuetarako.

A) Arau orokorrak:

1. Zergari buruzko Foru Legearen 14.1.d) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ez dira zergapetuko lokomozio gastuetarako eta ostalari-tzako establezimenduetan mantenua hartu eta egoteagatik ohiko diren gastuetarako ematen diren asignazioak, betiere, artikulua honetan adierazitako baldintza eta mugekin.

2. Lokomozio-gastuetarako asignazioak.

Ez dira zergapetuko enpresa, lantegi, tailer, bulego edo lantokitik beste toki batera lanera ateratzen den enplegatu edo langilearen lokomozio gastuak ordaintzeko erabiltzen dituen zenbatekoak, baldintza eta kopuru hauekin:

a) Enplegatu edo langileak garraibide publikoak erabiltzen baditu, faktura edo agiri baliokidearen bidez egiaztatzen den gastuaren zenbatekoa.

b) Beste kasu batean, kilometroko 0,35 euro biderkatetik ateratzen den kantitatea, joan-etorria egin dela frogatzen bada, gehi bidesarien eta aparkalekuaren gastuak, justifikatzen badira.

3. Mantenu eta egonaldiko gastuetarako asignazioak.

Ez dira zergapetuko enpresak, jasotzen duenaren ohiko lantokia eta bizilekua ez den herri batean, jatetxe, hotel eta ostalaritzako gainerako establezimenduetan mantenu hartu eta egoteagatik izaten diren ohiko gastuetarako erabiltzen dituen zenbatekoak.

Hurrengo b) letran aurreikusitako kasuetan salbu, ohiko lantokiko herria ez den batera joan eta bertan, jarraian, bederatzita hilabete baino gehiago egoteko denean, asignazio horiek ez dira zergatik kanpo geldituko. Horretarako, ez da deskontatuko oporraldia, gaixorik egondako denbora edo enpleguaren destinoa aldatzea ez dakarren beste egoera batean emandakoa.

a) Hotel, jatetxe eta ostalaritzako gainerako establezimenduetako mantenuko eta egonaldiko gastuetarako asignaziotzat ondoko hauek hartuko dira soilik:

1. 1. Gaua ematen denean hartzailearen ohiko lanlekua dagoen udalerrira edo bizi dena ez beste batean.

Egonaldi gastuengatik, faktura bidez justifikatzen diren zenbatekoak. Salgaiak errepidez garraiatzen dituzten ibilgailuetako gidarien kasuan, ez da justifikatu behar, zenbatekoari dagokionez, egunean 16,41 eurotik gorakoak ez diren egonaldiko gastuak, Espainiako lurraldean egindako joan-etorriengatik eginak badira, edo egunean 27,34 eurotik gorakoak ez direnean, atzerriko lurraldean egindako joan-etorriengatik.

Mantenu gastuengatik, 58,34 euro egunean, baldin eta joan-etorria Espainiako lurraldearen barruan egin bada, edo 99,91 euro egunean, atzerriko lurraldean egin bada.

2. Gaua ordaina jasotzen duen langilearen ohiko lanlekua eta bizilekua kokatzen diren udalerritik kanpo igaro ez bada, 29,17 edo 52,59 eurotik gorakoak ez diren mantenu gastuak, Espainiako lurraldearen barruan edo atzerriara egindako joan-etorriak diren, hurrenez hurren.

Hegazkin konpainietako hegaldi langileen kasuan, mantenu gastu arruntetarako esleipentzat hartuko dira egunean 39,44 eurotik gorakoak ez diren zenbatekoak, Espainiako lurraldearen barruko joan-etorriei badagozkie, edo egunean 72,31 eurotik gorakoak, atzerriara egindako joan-etorriei badagozkie. Egun berean bi inguruabar horiek batera gertatzen badira, egindako hegaldi kopuru handienari dagokion zenbatekoa aplikatuko da.

b) Zergapetzetik kanpo geldituko diren dietak hauexek izanen dira:

1. Destinoa atzerrian duten funtzionario publikoek eta Administrazio Publikoen zerbitzuko langileek Espainian destinaturik egonez gero lansari, antzinatasun, osagarri edo pizgarriengatik osotara jasoko lituzketen ordainsariekiko hartzen duten soberakina. Ondorio horietarako, ordainsarien arloko organo eskudunak erabakiko du langile horiei, Espainian destinaturik egonez gero, ordainsarrietan legezkiekeen parekatzeak zein diren.

2. Destinoa atzerrian duten enpresetako enplegatuek Espainian destinaturik egonez gero, beraien kargu, lanpostu, kategoria edo lanbidea dela eta, lansari, eguneko soldata, antzinatasun, aparteko lansari, mozkinena barne, famili laguntza edo beste edozein kontzeptuengatik osotara jasoko lituzketen ordainsariekiko hartzen duten soberakina.

Letra honetan aurreikusitakoa ez da bateragarria izanen 5. artikuluan aurreikusitako salbuespenarekin.

4. Aurreko idatz-zatietan aurreikusitako araubidea aplikatuko zaie halaber lokomozio, mantenu eta egonaldiko gastuetarako asignazioei, horiek jasotzen dituzten langileak berariaz kontrataturik baldin badaude zerbitzuak emateko lantoki mugikor edo ibiltariak dituzten enpresetan, eta beti ere, asignazio horiek langilearen ohiko bizilekua ez den udalerrira batera egindako joan-etorriengatik badira.

5. Artikulu honen arabera kargaz salbuesirik dauden zenbatekoak zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak berrikusten ahal ditu, funtzionario publikoen dietak berrikusten diren proportzioan.

6. Artikulu honetan aurreikusitako mugak gainditzen dituzten lokomozio, mantenu eta egonaldiko gastuetarako asignazioak zergapetu eginen dira.

B) Arau bereziak:

Menpekotasunezko lan harreman berezietatik heldu diren lan etekinak eskuratzen dituzten subjektu pasiboek, zerbitzuak ematen dituzteneko enpresek lokomozio eta mantenu gastuak berariaz ordaintzen ez badizkiete, izan dituzten etekin garbiak zehazteko, ondoko zenbateko hauek kendu ahal izanen dituzte beraien dirusarreretatik, baldin eta joan-etorriak egin direla frogatzen badute:

a) Lokomozio gastuak:

Garraibide publikoak erabiltzen direnean, faktura edo agiri baliokidearen bidez egiaztatzen den gastuaren zenbatekoa.

Beste kasu batean, kilometroko 0,35 euro biderkatzetik ateratzen den kantitatea, joan-etorria egin dela frogatzen bada, gehi bidesarien eta aparkalekuaren gastuak, justifikatzen badira.

b) Mantenu gastuengatik 29,17 edo 52,59 euro egunean, joan-etorria Espainiako lurraldean edo atzerrira egin den, horren arabera.

Aurrekoaren ondorioetarako, betiere enpresak berariaz ordaindutakoak izanen dira egonaldiko gastuak, eta artikuluko honetako A) letrako 3.a) idatz-zatian ezarritakoari jarraituz arautuko dira.

2. Zergapetzetik kanpo geldituko dira subjektu pasiboari lanpostua beste udalerrira batera aldatzeagatik ordaintzen zaizkion zenbatekoak, baldin eta lanpostuaren aldaketak bizilekua aldatzea ere ekartzen badu, eta zenbatekoak subjektu pasibo-

ak eta haren sendikoek lekualdatzean zehar izandako lokomozio eta mantenuko gastuei eta altzari eta tresnak mugitzeko gastuei badagozkie.

3. Zinpekogaiek eta zinpeko titular eta ordezkoez beren eginkizunak betetzeko jardunean jasotzen dituzten diru kopuruak ez dira zergapetuko, martxoaren 1eko 385/1996 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, ez eta Hauteskunde mahaietako kideek jasotzen dituztenak ere, Hauteskunde mahaietako kideen dieta arautzen duen martxoaren 1eko INT/212/2023 Aginduan ezarritakoarekin bat etorriz.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 14an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

